



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2009ko maiatzaren 12a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:00

BUKATZEKO ORDUA: 19:38

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu hartzailea

Jon Carrera Jauregi

AZTERGAI ZERRENDIA

1. Adjudikatzea, egoki bada, Orioko hondartzetako (Antilla eta Oribarzar) zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua eta Orioko udal kanpineko igerilekuaren zaintza eta botikin zerbitzuaren kontratazioa.
2. Onartzea, egoki bada, Baldintza Administratibo Partikularren Orria, Orioko Antilla hondartzako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua eta Orioko udal kanpineko igerilekuaren zaintza eta botikin zerbitzua prozedura irekiz, urgentziazko tratamenduz eta lehiaketa bidez kontratatzeko.
3. Dagozkion erabaki plenarioak hartzea, **ORIOKO HERRI IKASTOLA** kooperatiba elkarteari zuzeneko diru laguntza emateari buruzkoak, Orioko udal planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— DBHko ikastetxe berria eraikitzeko lanen finantzazioan laguntzeko.



ESAN-EGINAK

1.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HONDARTZETAKO (ANTILLA ETA ORIBARZAR) ZAINZTA, SALBAMENDU ETA LAGUNTZA ZERBITZUA ETA ORIOKO UDAL KANPINEKO IGERILEKUAREN ZAINZTA ETA BOTIKIN ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

HUTSIK UZTEA Orioko hondartzetako (Antilla eta Oribarzar) zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua eta Orioko udal kanpineko igerilekuaren zaintza eta botikin zerbitzuaren kontratazioaren deialdi publikoa, lizitatzailerik aurkeztu ez delako.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO ZAINZTA, SALBAMENDU ETA LAGUNTZA ZERBITZUA ETA ORIOKO UDAL KANPINEKO IGERILEKUAREN ZAINZTA ETA BOTIKIN ZERBITZUA PROZEDURA IREKIZ, URGENTZIAZKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ KONTRATATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA Baldintza Administratibo Partikularren Orria, Orioko Antilla hondartzako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua eta Orioko udal kanpineko igerilekuaren zaintza eta botikin zerbitzua prozedura irekiz, urgentziazko tramitazioz eta lehiaketa bidez kontratatzeko.

3.- DAGOZKION ERABAKI PLENARIOAK HARTZEA, ORIOKO HERRI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEARI ZUZENENKO DIRU LAGUNTZA EMATEARI BURUZKOAK, ORIOKO UDAL PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 8. SEKTOREAN —MUNTO— DBHKO IKASTETXE BERRIA ERAIKITZEKO LANEN FINANTZAZIOAN LAGUNTZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du lankidetzeta-hitzarmen proiektuaren hirugarren klausulan honako atala erantsiko dela, hitzez hitz: “Nolanahi ere, kontuan hartuta Orioko Herri Ikastolak berraztertzeke errekurtsioa aurkeztu duela Orioko Udalak 2009ko apirilaren 15eko 158. Alkate Dekretuaren bidez hartutako erabakien kontra



(ikastetxe berriari erantsita dagoen estalki edo portxea mozteari buruzkoak dira erabaki horiek), Udalak ez ditu hitzartutako diru laguntzaren ordainketa partzialak etengo harik eta errekurtsio hori modu irmoan eta behin betikoz erabakitzen ez den arte”.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda batzorde Informatzaileak 2009ko maiatzaren 11n egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU**, Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**:

1.- EMATEA ORIOKO HERRI IKASTOLA kooperatiba elkarteari 1.070.000 euroko zuzeneko diru laguntza bat, Orioko udal planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— DBHko ikastetxe berria eraikitzeko lanen finantzazioan laguntzeko.

2.- BAIMENTZEA ETA PRESTATZEA 1.070.000 euroko gastua Orioko Herri Ikastola kooperatiba elkartearen alde, 1.0605.771.422.00.01. zenbakidun aurrekontu partidaren kargura.

3.- ONARTZEA Orioko Udalaren eta Orioko Herri Ikastola kooperatiba elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmenaren proiektua, diru laguntza hori emateko baldintzak erregulatzen dituena; hitzarmenaren testua erabaki honi erantsita doa.

4.- AHALMENA EMATEA alkateari hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean, eta hitzarmena bete dadin egin beharrekoak egiteko.

Orioko 8. sektoreari —Munto— dagokion guztian orain arte erakutsitako jarrerarekiko koherentziagatik, Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) ez du bozketan parte hartu.

Emandako botoa azaltzeko, talde mistoko Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak aldeko botoa eman duela, baina ez daudela ados Udalak eman dituen pausoekin eta segitu duen prozedurarekin, iruditzen zaielako lankidetzeta-hitzarmena Udalaren inposizio bat izan dela eta Ikastola ez dela ezertarako aintzakotzat hartu.

Talde mistoko Karmele Belasko zinegotziak hartzen du hitza eta salatzen du behartuta egon direla erabakiaren lau atalak batera bozkatzera eta, bestalde, adierazten du Udalak segitu duen prozedura oso ‘garantista’ izan dela.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du lankidetzeta-hitzarmena legeak eskatzen duela, funts publikoak behar bezala bideratu ahal izateko.

Aztergai-zerrendatik kanpo, Udalbatzarrak ondoko erabakiak hartu ditu, aldez aurretik, **AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAI EZKO BOTO**], urgentziakotzat jo ondoren:



4.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL KANPINEKO TABERNA ETA SUPERMERKATU ZERBITZUAK KONTZESIO ADMINISTRATIBOKO ERREGIMENEAN EMATEKO KONTRATAZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Kontratazio Mahaiak aipatutako deialdia hutsik uzteko proposamena egin du, zehaztutako epean ez delako batere lizitatzailerik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

HUTSIK UZTEA Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak kontzesio administratiboko erregimenean emateko kontratazioaren deialdia, lizitatzailerik aurkeztu ez delako.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA, ARAUTUKO DUENA ORIOKO UDAL KANPINEKO TABERNA ETA SUPERMERKATUAREN ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATAZIOA, KONTZESIO ADMINISTRATIBOKO ERREGIMENEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Orria, arautuko duena Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatuaren zerbitzuak emateko kontratazioa, kontzesio administratiboko erregimenean.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,